ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2017ko otsailaren 22a, asteazkena • 22 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROLA

Kultura

Gasteizko Udalaren 2017ko proiektu kulturaletarako diru-laguntzen deialdia arautuko duten deialdi publikoa eta berariazko oinarriak

2017ko otsailaren 10ean egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko Gasteizen gauzatzeko diren kultur proiektuetarako diru-laguntzak emateko deialdi publikoa eta horren oinarriak.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek ezan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko otsailaren 10ean

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Administrazio Kudeaketako burua
NIEVES DÍAZ DE CORCUERA

11.ildo. Gasteizko udalaren 2017ko proiektu kulturaletarako diru-laguntzen deialdia arautuko duten berariazko oinarriak

2016ko abenduaren 29an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2017ko urtarrilaren 30eko ALHAOn argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke www.vitoria-gasteiz.org baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betebehar izango dituzten, diru-laguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Diru-laguntzen ildoa: Proiektu kulturalak.

Deialdiaren xedea:

— Kulturaren arloko sustapen-, sorkuntza-, prestakuntza- eta zabalkunde-ekimenetan laguntzea, udal jardueraren osagarri direlarik.

— Diru-laguntza jasoko duten ekintza kulturalek irekiak izan beharko dute, Gasteizko herritar guztiei zuzenduak; esperientzia berriak izan ahalko dira, edo lehendik dauden programei jarraipena eman, eta kulturaren arloetakoren baten barrukoak izan beharko dute: prestakuntza, sormena, zabalkundea, ikerketa...

Kontzeptuak:

Bi kontzeptutarako emango dira diru-laguntzak. Proiektu bakarra aurkeztu ahal izango dute entitateek, kontzeptu bakarrerako.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— 1. kontzeptua: Kulturaren edozein esparru —arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, letrak, folklorea, arte plastikoak edo beste— sustatzera zuzendutako ekitaldi eta programak barne hartzen ditu. Diru-zuzkidura: 100.000,00 euro.

— 2. kontzeptua: Dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasunaren sustapenera, bizitza kulturala bultzatzera eta antzekoetara zuzendutako jarduera eta programak barne hartzen ditu. Diru-zuzkidura: 50.000,00 euro.

Batzorde teknikoak ahalmena izango du proiektuak kontzeptu batetik bestera aldatzeko, zein kontzeptutarako aurkeztu diren hartan ondo egokitzen ez badira. Entitate eskatzaileak berariazko jakinarazpena jasoko du.

Baldin eta kontzeptu baterako zenbatekoa agortzen ez bada, soberako diru-kopurua beste kontzepturako baliatu ahal izango da.

Baliabide ekonomikoak:

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailaren 2017ko ekitaldiko aurrekontuetako 23.12.03.3341.489.33 partidan jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; beraz, gehienez 150.000,00 euro baliatu ahal izango dira horretarako.

Aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdiaren oinarrien laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Balioespen-irizpideak:

— Entitate eskatzailearen balioespena: 20

— Proiektua garatzeko gaitasuna. Horren bideragarritasun teknikoa: 10

— Egitura parte-hartzailea eta bidezkoa; parte hartzen duten bazkideen kopurua: 5

— Jardueraren edo elkartearen ibilbidea: 5

— Proiektuaren metodologia eta garapena: 10

— Proiektua gauzatzean eta jarduerak ebaluatzean baliatuko diren oinarriak, helburuak eta metodologia.

— Proiektuaren kalitatea eta interesa, kulturaren ikuspegitik: 33

— Proiektuaren garrantzi kulturala: 15

— Proiektuaren onuradunak: zuzendua dagoen kolektiboa, parte-hartzaileen kopurua: 10

— Barne- eta kanpo-komunikazioa: 3

— Proiektuan inplikatutako beste kolektibo batzuk: 5

— Bideragarritasun ekonomikoa: 5

— Efikazia, baliabide ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak esleitzean.

— Originaltasuna, berrikuntza, proiektua sendotzea: 15

— Euskararen erabilera, programaren garapenean: 7

— Ekintzak, jarduerak.

— Euskarak entitatearen irudian duen lekua (webgunea, sare sozialak, irudi korporatiboa...).

— Entitateak euskararen normalizaziorako bultzatzen dituen neurriak (adib.: langileak, begiraleak eta bestelako laguntzaileak kontratatzean euskara jakitea baloratzen da...).

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzen garapena: 5

— Langileak, begiraleak eta bestelako laguntzaileak kontratatzean kontuan hartzen da gizon eta emakumeen presentzia orekatua.

— Lana eta familia uztartzen laguntzeko bitartekoak eskaintzen dira.

— Tolerantzia eta kultura-aniztasuna sustatzen dituzten ekintzen garapena: 5

Diru-laguntza jaso ahal izateko programa bakoitzak gutxienez lortu behar duen puntu-kopurua:

Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehienez eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 50 lortzen dituzten proiektuak aukeratuko dira.

Konkurrentzia-erregimena: Norgehiagoka.

Ez dira diruz lagunduko:

— Gasteizko udalerritik kanpo gauzatzen diren proiektuak.

— Helburu nagusitzat ez kultura sustatu eta zabaltzea, baizik eta beste batzuk —sozialak, kirolaren arlokoak, erlijiosoak, politikoak, osasunaren arloak...— dituzten proiektuak.

— Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren proiektuak.

— Beste udal sail edo erakunderen baten berariazko eskumenekoak diren eta horien laguntza- edo lankidetza-ildoren baten barruan sartzen diren proiektuak.

— Diru-laguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan ez baizik eta beste batean gauzatuko diren jarduera edo programa kulturalak prestatu edo aldez aurreko lanak egitea xede duten ekintzak.

— Elkarte edo organizazioko kideen dieta edo bidaiek sortzen dituzten gastuak.

Programa edo jarduera bakoitzari gehienez emango zaion diru-laguntzaren zenbatekoa.

1. Proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 70ekoa izango da diru-laguntza, gehienez ere. Diru-laguntzaren zenbatekoak inolaz ere ezingo du gainditu 10.000,00 euroko kopurua 1. kontzeptura aurkeztutako proiektu bakoitzeko, edo 4.000,00 euroko kopurua 2. kontzeptura aurkeztutako bakoitzeko.

2. Hautatutako proiektuetako bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa erabakitzeko, lortu dituzten puntuazioen arabera banatuko da deialdiko kreditua. Ez da inolaz ere gainditu Kultura Zerbitzuari eskatutako diru-kopurua, eta beti ere aurreko atalean finkatutako muga errespetatuko da.

3. Aurreko atalean adierazitako aurrekontua onesteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Diruz lagundutako jarduera edo proiektuak garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuek nahitaez 2017an eginak izan beharko dute, eta eskuratze-kostuak inolaz ere ezingo dira izan merkatuko baliotik gorakoak.

b) Ezingo da diruz lagundu daitekeen gastutzat jo BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta eskatzailea zerga horren aitorpena egitera behartuta badago.

4. Baldin eta elkarte eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan aurreko atalaren ildotik diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, ez dira zenbatuko 1. atalean kontuan hartuko diren gastuak —diruz lagundu daitezkeen gastuak— zehazterakoan.

5. Elkarte onuradunak azkenean gauzatzen duen aurrekontua aurkeztu duena eta onartu zaiona baino txikiagoa egokitzen bada, dagokion proportzioan murriztuko zaio diru-laguntza. Horrek bietako bat ekar lezake: edo jasotako diru-laguntzaren zati bat itzultzea edo bigarren ordainketaren kopurua murriztea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Diru-laguntza justifikatzeko modua:

Oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera.

Proiektua lantzeko proposatzen den gidoia:

— Proiektuaren oinarriak.

— Helburuen formulazioa.

— Proiektuaren azalpena.

— Metodologia.

— Jardueren zerrenda.

— Jardueren egutegia.

— Jardueren kokalekua.

— Nori zuzenduta dauden.

— Aurreikusitako parte-hartzaileen kopurua eta kolektibo zehatza, eta publiko mota.

— Baliabide materialak eta giza baliabideak.

— Beste kolektibo batzuen inplikazioa.

— Ebaluazio-irizpideak.

— Jardueraren zabalkunderako elementuak edo sistema.

Diru-sarrera eta gastuen aurrekontua:

— Gastuen zerrenda.

— Diru-sarreren zerrenda, barne hartuz: eskatutako, aurreikusitako nahiz jasotako bestelako diru-laguntza edo laguntza ekonomikoak eta izen-ematearen bitartez jasoko direnak.

Entitatearen jarduerak egindako bidea:

— Entitateak aurreko urtean garatutako jardueren oroitidazkia (salbu eta berriki eratutako entitatea bada).

— Entitatearen ezaugarriak: helburuak, bazkide eta boluntarioen kopurua...

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2017.02.22 06:48:47 Z